2000

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

nº 4

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## Mugimendu turistikoak Euskadin

### FAMILITUR 1999

## Los movimientos turísticos en el País Vasco

### FAMILITUR 1999

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola

*1999ko Espainiarren Mugimendu Turistikoen estatistikak lehen aldiz Autonomia Erkidegoei dagozkien datuak ezagutzea ahalbidetzen du, bertako herritarrek eginiko bidaiei zein jasotakoei buruzkoak.*

*La estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) de 1999 permite conocer, por primera vez, datos referidos a las Comunidades Autónomas sobre los viajes realizados por sus ciudadanos así como los recibidos.*

# Autonomia-erkidegoen portaera turistikoa

# El comportamiento turístico de las comunidades autónomas

1996an, Azterketa Turistikoen Institutuak Espainiarren Mugimendu Turistikoen estatistika (Familitur) martxan jarri zuen.

Estatistika hau espainiarrek eginiko bidaietan kontzentratzen da, Estatuaren barruan zein atzerrira, betiere beren ohizko bizilekutik kanpora gau bat igarotzen badute, edozein arrazoigatik dela ere.

1999an, lehen aldiz, laginaren tamainak (elkarrizketatutako 10.800 familia, horietatik 594 Euskadin) Autonomia Erkidegoei buruzko informazioa lantzea ahalbidetu du, zenbait gairi buruzkoa, ondokoak esaterako:

- bidaiari-fluxuen kuantifikazioa,
- bidaiarien zehazpena
- bidaien zehazpena (iraupena, arrazoia, erabilitako ostatu-mota, eta abar).
- 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak

*En 1996 el Instituto de Estudios Turísticos puso en marcha la estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).*

*Esta estadística se centra en los viajes realizados por los españoles, tanto dentro del Estado como hacia el extranjero, siempre que supongan realizar una pernoctación fuera del lugar habitual de residencia, sea cual sea el motivo.*

*En 1999, por primera vez, el tamaño de la muestra (10.800 hogares entrevistados, de los cuales 594 en el País Vasco) ha permitido elaborar información a nivel de las Comunidades Autónomas en relación a una serie de cuestiones tales como:*

- *cuantificación de los flujos de viajeros,*
- *caracterización de estos viajeros*
- *caracterización de los viajes (duración, motivo, tipo de alojamiento utilizado, etc.).*
- *viajes de corta duración a 2ª residencia*

Gai hauek guztiek Autonomia Erkidego bakoitza abiapuntuko merkatuko gisa hartzen dute, hau da, zenbat bidaiatzen duten kataluniarrek, euskaldunek, andaluziarrek eta abar, zein diren, nora joaten diren, non hartzen duten ostatu, eta abar. Baina eskueran dugun informazioak Autonomia Erkidego bakoitzak Estatu osoan duen garrantzia zehaztea ere ahalbidetzen du eta zenbat datozen, nondik, nola egiten duten eta non hartzen duten ostatu, eta abar jakitea.

*Estas cuestiones aluden todas ellas a la consideración de cada Comunidad Autónoma como mercado emisor, es decir, cuánto viajan los catalanes, los vascos, los andaluces, etc. quiénes son, a donde van, dónde se alojan, etc. Pero la información disponible permite igualmente determinar la importancia de cada una de las Comunidad Autónomas como destino turístico en el conjunto del Estado, y poder saber cuántos vienen, de dónde, cómo lo hacen y dónde se alojan, etc.*

Euskadiri dagokionez, Familitur-ko oinarrizko datuak aztertzen dira lehen aldiz. Inkesta hau eta beste zenbait osagarri egiten jarraitzeak geroan orain hasitako azterketa-ildo honetan jarraitzea ahalbidetuko du eta, hala, Euskadiko portaera turistikoari buruzko ezagutza sakontzea.

*Referido al País Vasco, se analizan por primera vez los datos básicos de Familitur. La continuidad en la realización de esta encuesta así como otras complementarias permitirán proseguir en el futuro con esta línea de análisis que ahora se inicia y ahondar así en el conocimiento sobre el comportamiento turístico de Euskadi.*

Oraingoz, txostenak Euskadiren ikuspuntu bikoitza eskaintzen digu abiapuntuko erkidego eta erkidego hartzaile gisa eta bost ataletan egituratzen da, eta horietatik lau lehenengoek euskaldunek bidaiari gisa duten portaera deskribatzen dute, hiru azterketa-unitateren arabera. Bosgarren atalak, bestalde, Euskadik jomuga turistiko gisa Estatu osoan duen garrantzia aztertzen du.

Irakurleak errazago uler dezan, ondoren datuen azterketan barne hartutako aldagai nagusien definizioak datoz, Espainiaren Mugimendu Turistikoen Estatistikak berak definitzen dituenaren arabera.

*De momento, este informe ofrece la doble perspectiva de Euskadi como Comunidad emisora y receptora y se estructura en cinco apartados, de los cuales los cuatro primeros se dedican a describir el comportamiento de los vascos como viajeros en función de tres unidades de análisis: hogares, individuos y viajes. Por su parte el quinto apartado evalúa la importancia de Euskadi como destino turístico en el conjunto del Estado.*

*A fin de facilitar la comprensión del lector se incluyen, a continuación, las definiciones de las principales variables incluidas en el análisis de los datos, según las define la propia Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles.*

## Definizio nagusiak

## Principales definiciones

**Bidaia:**
edozein joan-etorri ohizko ingurutik kanpo, gutxienez gau bat bertan igarota.

**Bertan igarotako gau-kopurua:**
taldeak ostatu hartzeko establezimendu batean edo establezimendu turistiko pribatu batean bidaiariak ematen duen edo erregistratuta dagoen gau bakoitza

**Iraupen laburra:** bertan igarotako gau-kopurua lau gauetik beherakoa denean. Iraupen luzea: bertan igarotako gau-kopurua lau gauekoa edo goragokoa denean.

**Bigarren bizilekua:** familiak erabil dezakeen eta nagusia ez den edozein bizileku, betiere bizi den udalerritik kanpo badago. Bere jabetzakoa izan daiteke, alokatutakoa edo familiarteko edo lagunena.

***Viaje:***
*cualquier desplazamiento fuera del entorno habitual con al menos una pernoctación.*

***Pernoctación:***
*cada una de las noches que un viajero permanece o está registrado en un establecimiento de alojamiento colectivo o turístico privado.*

***Corta duración:***
*cuando el número de pernoctaciones es inferior a cuatro noches.*

***Larga duración:*** *cuando el número de pernoctaciones es igual o superior a cuatro noches.*

**Bigarren bizilekua:** familiak erabil dezakeen eta nagusia ez den edozein bizileku, betiere bizi den udalerritik kanpo badago. Bere jabetzakoa izan daiteke, alokatutakoa edo familiarteko edo lagunena.

**Bidaiak guztira**
bidaia-mota guztiak:

> **Bigarren bizilekurako iraupen laburreko:bidaiak:** bigarren bizilekurako aukera duten familiek egiten dituzten bidaia errepikariak, eta zeinetan bertan igarotako gau-kopurua lau gauetik beherakoa (iraupen laburra) den.

> **Bidaia turistikoak:** iraupen luzeko bidaiak bigarren bizilekura eta gainerako bidaiak, iraupen laburrekoak edo luzekoak direla, zeinetan erabilitako ostatu-mota ez den bigarren bizilekua izan.

***Segunda residencia:***
*cualquier vivienda distinta de la principal a la que el hogar tenga acceso, y ubicada fuera del municipio de residencia. Puede ser en propiedad, alquilada o de familiares o amigos.*

***Viajes totales***
*todos los tipos de viajes:*

> ***Viajes de corta duración a segunda residencia:*** *viajes recurrentes que efectúan las familias que tienen acceso a una segunda residencia y en los que el número de pernoctaciones es inferior a cuatro noches (corta duración).*

> ***Viajes turísticos:***
> *viajes de larga duración a segunda residencia y resto de viajes bien sean corta o larga duración, en los que el tipo de alojamiento utilizado no ha sido la segunda residencia.*

## Euskal familien portaera turistikoa

## Comportamiento turístico de los hogares vascos

1999an, euskal familien %74an bere kideren batek bidaia bat egin zuen gutxienez, eta horren arabera familia bidaiaritzat sailka ditzakegu bidaiari ez diren %26aren aurrean, familia bakoitzeko 6 bidaiako batez besteko kopuruarekin, Estatu osoa kontuan izanda.

*A lo largo de 1999, en el 74% de los hogares vascos alguno de sus miembros realizó al menos un viaje, circunstancia que permite calificarlos como hogares viajeros frente a un 26% que no lo son, con un número medio de 6 viajes por hogar. Referido al conjunto de Estado, la proporción varía bastante, los no viajeros suponen un 40% del total de hogares y un 60%, los viajeros.*

**Familia bidaiariak eta ez-bidaiariak. Euskadi eta Estatua. 1999. (%)**

**Hogares viajeros y no viajeros. Euskadi y Estado. 1999. (%)**

| | Bidaiak guztira Viajes totales | | | | Bidaia tristikoak Viajes turísticos | | | | 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak soilik Sólo viajes corta duración a 2ª residencia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Familia bidaiariak Hogares viajeros | Familia ez bidaiariak Hogares no viajeros | Guztira Familia Total Hogares | Bidaia-kop./ familia Nº viajes/ hogar | Familia bidaiariak Hogares viajeros | Familia ez bidaiariak Hogares no viajeros | Guztira Familia Total Hogares | Bidaia-kop./ familia Nº viajes/ hogar | Familia bidaiariak Hogares viajeros |
| Euskadi: | 74 | 26,0 | 633.028 | 6,0 | 71,5 | 28,5 | 633.028 | 2,8 | 2,5 |
| Estatua / Estado: | 60,5 | 39,5 | 11.854.850 | 6,7 | 58,4 | 41,6 | 11.854.850 | 3,1 | 2,1 |

*Iturria / Fuente: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

Euskal herritarren bidaiatzeko gogoa bigarren altuena da Estatuko AEen artean, Madrilgo Erkidegoko egoiliarrenak baino ez baitu gainditzen (%81), berau baita, hain zuzen, erkidegorik emisoreena alde handiarekin. Nafarroako eta Errioxako familiek ere mugikortasun-indize altua dute, Katalunian indizea familien %65 ingurukoa den bitartean.

*La disposición viajera de los ciudadanos vascos es la segunda más elevada entre las CC.AA. del Estado ya que solo es superada por la que presentan los residentes en la Comunidad de Madrid (81%) que constituye, con mucha diferencia, la comunidad más emisora. Los hogares navarros (74%) y riojanos (70%) presentan también un índice de movilidad elevado, mientras en Cataluña el índice se sitúa en torno al 65% de los hogares.*

Familia bere kideren batek bidaia turistikoak edo 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak egin dituelako hartzen da bidaiaritzat. Euskadin zein Estatuan, familia bidaiariaren kalifikazioa bidaia turistikoei zor zaio gehienbat: bidaiak egin dituzten familien %97a.

*Un hogar es considerado viajero porque alguno de sus miembros ha realizado viajes turísticos o viajes de corta duración a una 2ª residencia. Tanto en el País Vasco como en el Estado, la calificación de hogar viajero se debe mayoritariamente a la realización de viajes turísticos: 97% de los hogares que han realizado viajes.*

**Familia bidaiariak AE bakoitzeko. 1999**

**Hogares viajeros por CC.AA. 1999**




Familia batean inork bidaiarik egin ez izanaren arrazoiak zehaztu nahi direnean, arrazoi aipatuenak ekonomiari lotutakoak eta denbora-falta dira Euskadin zein Estatu osoan, nahiz eta azken honetan nabarmenagoa den (%35a eta %31 hurrenez hurren). Euskadin bi arrazoi hauek oso antzeko garrantzia dute, %25-26 ingurukoa.

*Cuando se trata de determinar las razones por las que en un hogar nadie ha realizado ningún viaje, las razones de tipo económico y la falta de tiempo son las más aludidas tanto en el País Vasco como en el conjunto del Estado, aunque en éste último todavía con más insistencia (35% y 31% respectivamente). En Euskadi, estos dos motivos tiene una importancia muy similar que se sitúa en torno al 26-25%.*

*Euskal familien arteko %74an, bere kideren batek bidaia bat egin zuen 1999an, eta horrek Euskadi abiapuntuko merkaturik altuena bilakatzen du, Madrilen ondoren.*

*En el 74% de los hogares vascos alguno de sus miembros realizó en 1999 un viaje, lo que convierte al País Vasco en el mercado emisor más alto del Estado, tras Madrid.*

*Familia ez-bidaiarien arrazoi nagusiak ez bidaiatzeko (bidaia turistikoak). Euskadi eta Estatua. 1999.*
*Principales motivos de los hogares no viajeros para no viajar (viajes turísticos). Euskadi y Estado. 1999.*




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

# Euskaldunak bidaiari gisa

# Los vascos como viajeros

*1999an, euskal herritarren %62ak bidaiaren bat egin zuen; kasuen %4a 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak izan zen soilik.*

*En 1999, el 62% de los ciudadanos vascos realizaron algún viaje; en un 4% de los casos se trató exclusivamente de viajes de corta duración a segunda residencia.*

Familiei dagokionez, lau euskal familiatik hiru bidaiaritzat hartzen baziren, herritarrak kontuan hartzen badira, Euskadiko bidaiariak 1999an euskadiko biztanleriaren 2.071.551aren %62a ziren. Horietatik gehiengo handi bat (%94a) bidaiari turistikotzat sailkatzen dira eta gainerakoak bigarren bizilekurako iraupen laburreko bidaiariak lirateke soilik. Estatuan, bidaiatzeko gogoa txikiagoa da, eta biztanleriaren erdiak agertzen du gogo hori.

*Si en términos de hogares, tres de cada cuatro hogares vascos se consideraban viajeros, cuando se toma en consideración los ciudadanos, los viajeros en Euskadi y en 1999 representan el 62% de los 2.071.551 de población vasca. De éstos, una gran mayoría (94%) son calificados de viajeros turísticos y el resto serían exclusivamente viajeros de corta duración a segunda residencia. En el Estado, la disposición a viajar es menor de manera que tal condición la manifiesta la mitad de la población.*

**Herritar bidaiariak AE bakoitzeko. 1999**

**Ciudadanos viajeros por CC.AA.**




Familiatur-ek biztanleria bidaiaria hilabeteka eta bidaia-mota bakoitzerako bereizten ditu, eta bidaia turistikoei dagokionez, ondokoa ikus daiteke; urtean zehar proportzioak fluktuatu egiten du, Aste Santuarekin eta uda-partearekin bat etortzen den urteko hilabeteetan gora egiteko, normala denez. Aitzitik, 2. bizilekurako bidaiek hileko profil egonkorragoa dute urtean zehar.

Herritar bidaiarien urteko portzentaia handiena abuztuan lortzen da eta txikiena azaroan, bidaia turistikoak zein bigarren bizilekurako iraupen laburreko bidaiak direla. Turistikoen kasuan, euskal herritarren %37ak (%26ak Estatuan) bidaiak egin ditu oporraldietako hilabete nagusi horretan.

*Familitur desagrega la población viajera por meses y para cada tipo de viaje y, en relación a los viajes turísticos, se observa cómo a lo largo del año la proporción fluctúa para aumentar lógicamente en aquellos meses del año que coinciden con la Semana Santa y el periodo estival. Por el contrario, los viajes a 2ª residencia presentan a lo largo del año un perfil mensual más estable.*

*El máximo porcentaje anual de ciudadanos viajeros se obtiene en el mes de Agosto y en Noviembre el mínimo, tanto sean viajes turísticos como de corta duración a segunda residencia. En el caso de los turísticos, un 37% de ciudadanos vascos (26% en el Estado) han realizado viajes en ese mes vacacional por excelencia.*

**Herritar bidaiariak eta ez-bidaiariak. Euskadi eta Estatua. 1999. (%)**

**Ciudadanos viajeros y no viajeros. Euskadi y Estado. 1999. (%)**

| | Herritar bidaiariak / Ciudadanos viajeros | | |
|---|---|---|---|
| | Guztira Totales | Turistikoak Turísticos | Iraupen laburra 2. bizilekura Corta duración a 2ª residencia |
| Euskadi | 61,5 | 57,5 | 4,0 |
| Urtarrila / Enero | 13,7 | 6,3 | 7,4 |
| Otsaila / Febrero | 10,7 | 4,4 | 6,3 |
| Martxoa / Marzo | 12,2 | 5,6 | 6,6 |
| Apirila / Abril | 22,2 | 15,9 | 6,3 |
| Maiatza / Mayo | 13,1 | 5,3 | 7,8 |
| Ekaina / Junio | 10,1 | 3,3 | 6,8 |
| Uztaila / Julio | 16,5 | 8,7 | 7,9 |
| Abuztua / Agosto | 37,3 | 32,1 | 5,1 |
| Iraila / Septiembre | 19,3 | 13,1 | 6,2 |
| Urria / Octubre | 9,8 | 4,5 | 5,3 |
| Azaroa / Noviembre | 7,0 | 2,9 | 4,1 |
| Abendua / Diciembre | 12,2 | 7,1 | 5,1 |
| Estatua / Estado | 49,7 | 46,8 | 2,9 |
| Urtarrila / Enero | 12,9 | 6,3 | 6,6 |
| Otsaila / Febrero | 9,9 | 3,8 | 6,1 |
| Martxoa / Marzo | 11,1 | 5,0 | 6,2 |
| Apirila / Abril | 16,8 | 10,7 | 6,1 |
| Maiatza / Mayo | 12,8 | 6,3 | 6,4 |
| Ekaina / Junio | 9,2 | 2,7 | 6,4 |
| Uztaila / Julio | 14,1 | 8,2 | 5,9 |
| Abuztua / Agosto | 26,4 | 23,0 | 3,4 |
| Iraila / Septiembre | 16,6 | 11,6 | 5,0 |
| Urria / Octubre | 9,1 | 3,8 | 5,3 |
| Azaroa / Noviembre | 8,4 | 3,5 | 4,9 |
| Abendua / Diciembre | 11,1 | 6,7 | 4,4 |

Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

**Herritar bidaiari turistikoak eta 2. bizilekurako iraupen laburrekoak (%). 1999. Euskadi eta Estatua.**

**Ciudadanos viajeros turísticos y de corta duración a 2ª residencia (%). 1999. Euskadi y Estado.**




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Euskal bidaiarien profila

## Perfil de los viajeros vascos

Familiatur-ek hiru aldagai eskaintzen ditu AE bakoitzean herritar bidaiarien taldea zehazteko: adina, sexua eta ikasketa-maila.

*Tres son las variables que ofrece Familitur para caracterizar el colectivo de ciudadanos viajeros en cada CC.AA: la edad, el sexo y el nivel de estudios.*

*Emakumeen abantaila txikia (%52) bidaiatzen duten euskal herritarren artean.*

*Ligera ventaja de las mujeres (52%) entre los ciudadanos vascos que viajan.*

Adin-talde bakoitzeko, 25 urtetik beherako bidaiariak guztirakoaren %30a dira eta beste %34 bat 25-44 urte bitarteko lagunei dagokie. Zaharrak, hau da, 65 urtetik gorakoak %10a dira (%11 Estatuan).

Heziketa-mailari dagokionez, Euskadin, 1996an 6 urtetik gorako biztanleriaren %78ak lehen mailako ikasketak edo lanbide-ikasketak zituen eta %15ak erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak. Ikasketa-mailaren eta errenta erabilgarriaren artean dagoen erlazioa kontuan izanda, logikoa da heziketa-maila handiagoko herritarrek presentzia handiagoa izatea bidaiarien artean, eta aitzitik, ikasketa gutxiago dutenen beherakada aurreikustea, eta hala gertatzen da, hain zuzen ere.

Azkenik, emakumeek abantaila txikia ateratzen diete gizonei "turista" mailari dagokionez.

*Por grupos de edad, los viajeros menores de 25 años representan el 30% del total y otro 34% los individuos de edades comprendidas entre los 25 y 44 años. Los mayores, es decir ciudadanos a partir de 65 años representan un 10% (11% en el Estado)..*

*En cuanto al nivel de instrucción, en el País Vasco, en 1996, el 78% de la población mayor de 6 años tenía estudios primarios o profesionales y el 15% estudios medios o superiores. Teniendo en cuenta la correlación que existe entre nivel de estudios y renta disponible, es lógico esperar una mayor presencia entre los viajeros de ciudadanos con mayor nivel de instrucción (20%), y, a la inversa una disminución de los que tienen menos estudios (65%), como así sucede.*

*Por último, las mujeres adelantan ligeramente a los hombres en su condición "turista".*

**Bidaiarien ezaugarriak (bidaia turistikoak).**

**Características viajeros (viajes turísticos).**

| | Euskadi | Estatua / Estado |
|---|---|---|
| Adina / Edad | | |
| 14 urte arte / Hasta 14 años | 14,1 | 17,5 |
| 15-24 urte bitartean / De 15-24 años | 15,4 | 15,3 |
| 25-34 urte bitartean / De 25-34 años | 17,5 | 17,8 |
| 35-44 urte bitartean / De 35-44 años | 16,6 | 16,0 |
| 45-54 urte bitartean / De 45-54 años | 15,9 | 13,1 |
| 55-64 urte bitartean / De 55-64 años | 11,1 | 9,4 |
| 65-74 urte bitartean / De 65-74 años | 7,4 | 8,0 |
| 75 urte eta gehiago / 75 y más años | 2,1 | 3,0 |
| GUZTIRA / TOTAL | 100,0 | 100,0 |
| Sexua / Sexo | | |
| Emakumezkoa / Mujer | 52,0 | 50,9 |
| Gizonezkoa / Varón | 48,0 | 49,1 |
| GUZTIRA / TOTAL | 100,0 | 100,0 |
| Ikasketa-maila / Nivel estudios | | |
| 6 urte baino txikiagoak / Menores de 6 años | 5,6 | 6,7 |
| Ikasketarik gabe / Sin estudios | 9,0 | 11,8 |
| Lehen mailakoak OHO/LH1 / Primarios EGB/FP1 | 45,0 | 43,1 |
| BBB/UBI LHII / BUP/COU FPII | 20,4 | 20,9 |
| Diplomatua / Diplomado | 9,3 | 7,9 |
| Goi-mailako ikasketak / Estudios Superiores | 10,3 | 9,5 |
| Bestelakoa / Otro | 0,2 | 0,1 |
| GUZTIRA / TOTAL | 100,0 | 100,0 |

Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Euskal herritarren bidaia-motak

## Los tipos de viajes de los ciudadanos vascos

1999an, euskal herritarrek 6,9 milioi bidaia egin zituzten guztira Estatuaren barruan. Estatuko egoiliarrek urte horretan eginiko guztiaren %5,8a da. 6,7 bidaiako batez bestekoa ematen du horrek familia bidaiari bakoitzeko estatuan 6 bidaiko ematen du. Bidaia hauek bertan igarotako 35.000.000 milioi gau pasatxo egin zutela kontuan hartuta, ondoriozko batez bestekoa bidaia bakoitzeko bertan igarotako 5 gau da.

*En 1999, los ciudadanos vascos realizaron un total de 6,9 millones de viajes dentro del Estado. Representan el 5,8% del total de viajes realizados ese año por residentes del Estado. Supone una media de 6,7 viajes por hogar viajero frente a 6 en el Estado. Teniendo en cuenta que estos viajes sumaron algo más de 35.000.000 de pernoctaciones, la media resultante es de 5 pernoctaciones por viaje.*

*7 milioi bidaia eskas eta 35 milioi bertan igarotako gau pasatxo egin zituzten euskal herritarrek 1999an. Estatuan eginiko bidaien % 5,8a eta bertan igarotako gau-kopuruaren % 6,7a da hori.*

*Casi 7 millones de viajes y algo más de 35 millones de pernoctaciones realizaron los ciudadanos vascos en 1999. Representa un 5,8% de los viajes realizados en el Estado y un 6,7% de las pernoctaciones*

Dagokien populazioaren eta familia bidaiarien pisu handiagoaren arabera, bidaia-bolumen handiena duten AEak Madril, Katalunia eta Andaluzia dira (25, 18 eta 16 miloi bidaia, hurrenez hurren), nahiz eta bi azkenak familia bidaiarien terminoetan daudenaren baino zertxobait azpitik egon. Madrilek, dena den, familia bidaiarien %17a duela, %21a du bidaiako terminoetan, familia bakoitzeko 8,5 bidaiako maiztasunarekin.

Eginiko bidaia guztien artean, %37a bidaia turistikoak dira, Euskadin zein Estatuan, nahiz eta bertan igarotako gau-kopuruko terminoetan eginiko guztien %78a eta %73a izan, hurrenez hurren.

*De acuerdo a su mayor peso poblacional y de hogares viajeros, las CC.AA. que registran el mayor volumen de viajes son Madrid, Cataluña y Andalucía (25, 18 y 16 millones de viajes, respectivamente) aunque las dos últimas ligeramente por debajo de lo que representan en términos de hogares viajeros. Madrid, sin embargo, con el 17% de los hogares viajeros, representa el 21% en términos de viajes con una frecuencia de 8,5 viajes por hogar.*

*De todos los viajes realizados, el 37% tienen la consideración de viajes turísticos, tanto en Euskadi como en el Estado aunque en términos de pernoctaciones representan un 78% y un 73%, respectivamente de todas las realizadas.*

**Euskal herritarrek eginiko bidaien eta bertan igarotako gau-kopuruaren banaketa bidaia-motaren arabera eta dagokion konparaketa Estatuarekin. 1999.**

**Distribución de los viajes y pernoctaciones realizados por los ciudadanos vascos según tipo de viaje y su comparación con el Estado. 1999.**

| | Euskadi | | Estatua / Estado | |
|---|---|---|---|---|
| | Kop.º / Nº | % | Kop.º / Nº | % |
| Bidaiak guztira / Viajes totales | 6.872.325 | 100,0 | 118.951.200 | 100,0 |
| Bidaia turistikoak / Viajes turísticos | 2.567.285 | 37,4 | 43.618.390 | 36,7 |
| 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak / Viajes corta duración a 2ª residencia | 4.305.041 | 62,6 | 75.332.750 | 63,3 |
| Bertan igarotako gau-kopurua guztira* / Pernoctaciones totales* | 35.022 | 100,0 | 520.384 | 100,0 |
| Bertan igarotako gau-kopuru turistikoa / Pernoctaciones turísticas | 27.174 | 77,6 | 380.768 | 73,2 |
| 2. bizilekurako iraupen laburreko bertan igarotako gau-kopurua. / Pernoctaciones corta duración a 2ª res. | 7.847 | 22,4 | 139.616 | 26,8 |

** milakotan / en miles*
Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

**Bidaien banaketa motaren arabera. 1999. Euskadi eta Estatua**

**Distribución de los viajes según tipo. 1999. Euskadi y Estado.**

Euskadi




Estatua / Estado




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Euskal turisten jomugak

## Destinos de los turistas vascos

*Gaztela eta Leon euskal turisten bidaia turistikoen lehenengo jomuga da(%24) atzetik Valentziako erkidegoa (%11) eta Euskadi bera (%8).*

*Castilla y León primer destino de los viajes turísticos de los vascos (24%) seguido de la Comunidad Valenciana (11%) y la propia Euskadi (8%).*

Euskaldunen bidaia turistikoen Espainia eta atzerriaren arteko jomugaren lehenengo segmentazio handiak lehenengo jomuga bigarrenari nagusitzen ziola erakusten du, %90-%10 erlazioan, Estatuan %92-%8 den bitartean. Estatuak jomuga gisa duen garrantzia oraindik handiagoa da bigarren bizilekurako iraupen laburreko bidaiak kontuan hartzen badira.

Estatuko lurraldearen barruan, jomugako AEak aldatu egiten dira bidaia-motaren arabera. Lehenengo kasuan, Gaztela eta Leon laurden eskasaren (%24) jomuga da, dezente atzetik Valentziako erkidegoa duela (%11). Euskadi euskaldunen beraien hirugarren jomuga da bidaia turistikoetan. (%8).

*Una primera gran segmentación del destino de los viajes turísticos de los vascos entre España y extranjero revela la supremacía del primer destino sobre el segundo, en una relación de 90%-10%, mientras en el Estado es de 92%-8%. La importancia del Estado como destino es todavía mayor cuando se consideran los viajes de corta duración a segunda residencia (99%).*

*Dentro del territorio estatal las CC.AA. de destino varían según tipo de viaje (turístico o de segunda residencia). En el primer caso, Castilla y León es el destino de casi la cuarta parte de los viajes (24%) seguida a bastante distancia por la Comunidad Valenciana (11%). El País Vasco es el tercer destino de los propios vascos en viajes turísticos (8%).*

*Euskal herritarrek eginiko bidaien jomugako AE nagusiak, bidaia-motaren arabera. 1999.*
Principales CC.AA. de destino de los viajes realizados por ciudadanos vascos, según tipo de viaje. 1999.







Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

**Euskal herritarren bidaia turistikoen jomugako AEak. 1999**

**CC.AA. de destino de los vascos (viajes turísticos). 1999**




**Euskal herritarren 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaien jomugako AEak. 1999**

**CC.AA. de destino de los viajes de corta duración a 2ª residencia de los ciudadanos vascos. 1999**




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

*Estatuan, herritar espainiarren jasotako bidaia turistikoei dagokionez lehenengo AEa Andaluzia da (%20) eta ondoren hiru erkidego, %10-12 bitarteko pisuarekin: Katalunia, Valentziako erkidegoa eta Gaztela eta Leon. Euskadi Estatuan eginiko bidaien guztiaren %2aren jomuga da, horrek 15. postuan uzten du 17 AEen artean, Nafarroa eta Errioxa gainditzen dituela soilik.*

*En el Estado, la primera CC.AA. en cuanto a viajes turísticos recibidos de ciudadanos españoles es Andalucía (20%) y después tres Comunidades con un peso entre 10-12%: Cataluña, Comunidad Valenciana y Castilla León. El País Vasco es el destino del 2% del total de viajes realizados en el Estado, lo que le sitúa en el puesto 15 de las 17 CC.AA. superando solo a Navarra y La Rioja.*

**Euskal herritarrek eginiko bidaien jomuga eta dagokion konparaketa Estatu osokoen jomugekin. 1999. (%)**

**Destino de los viajes realizados por ciudadanos vascos y comparación con los destinos del conjunto del Estado. 1999. (%)**

| | Euskadi | | | Estatua / Estado | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira Totales | Turistikoak Turísticos | 2. bizilekurako iraupen laburrekoak Corta duración a 2ª residencia | Guztira Totales | Turistikoak Turísticos | 2. bizilekurako iraupen laburrekoak Corta duración a 2ª residencia |
| Bidaiak guztiak / Viajes totales | 6.872.325 | 2.567.285 | 4.305.041 | 118.951.200 | 43.618.390 | 75.332.750 |
| Espainia / España | 95,5 | 89,6 | 99,0 | 97,1 | 92,2 | 99,9 |
| Atzerria / Extranjero | 4,5 | 10,4 | 1,0 | 2,9 | 7,8 | 0,1 |
| GUZTIRA / TOTAL | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Andaluzia / Andalucía | 1,8 | 5,1 | -- | 16,0 | 19,5 | 14,1 |
| Aragoi / Aragón | 2,9 | 5,1 | 1,6 | 2,9 | 4,0 | 2,3 |
| Asturias | 0,8 | 2,0 | 0,2 | 3,0 | 2,7 | 3,2 |
| Balearrak / Baleares | 0,6 | 1,8 | -- | 1,8 | 2,2 | 1,5 |
| Kanariak / Canarias | 1,3 | 3,7 | -- | 4,5 | 4,5 | 4,4 |
| Kantabria / Cantabria | 16,0 | 6,4 | 21,0 | 2,2 | 2,6 | 2,0 |
| Gaztela-Mantxa / Castilla la Mancha | 0,9 | 1,6 | 0,5 | 8,8 | 6,6 | 9,9 |
| Gaztela eta Leon / Castilla y León | 21,9 | 24,3 | 20,4 | 12,4 | 10,2 | 13,5 |
| Katalunia / Cataluña | 4,9 | 6,4 | 4,0 | 14,2 | 12,2 | 15,3 |
| Valentziako Erki. / Com. Valenciana | 4,0 | 10,9 | 0,3 | 12,0 | 12,0 | 11,9 |
| Extremadura / Extremadura | 1,7 | 4,6 | 0,2 | 2,9 | 4,1 | 2,2 |
| Galizia / Galicia | 2,3 | 5,9 | 0,4 | 5,7 | 6,6 | 5,3 |
| Madril / Madrid | 1,8 | 4,8 | 0,2 | 6,3 | 6,0 | 6,4 |
| Murtzia / Murcia | 0,1 | 0,2 | -- | 2,4 | 2,6 | 2,4 |
| Nafarroa / Navarra | 6,2 | 4,2 | 7,2 | 1,7 | 1,0 | 2,1 |
| Euskadi / País Vasco | 26,6 | 7,6 | 36,4 | 2,2 | 2,0 | 2,4 |
| Errioxa / La Rioja | 6,2 | 5,3 | 6,6 | 1,0 | 0,9 | 1,1 |

Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Bidaien iraupena

## Duracion de los viajes

*Iraupen laburreko bidaiak, lau gauetik beherakoak, euskaldunek eginiko bidaia guztien %72a dira.*

*Los viajes de corta duración, por debajo de cuatro noches, representan el 72% de todos los viajes realizados por los vascos.*

Familitur-en definizio metodologikoaren arabera, 2. bizilekurako bidaia laburrek, euskaldunen bidaien %63ak, lau gauetik beherako iraupena dute. Bidaia turistikoen kasuan, bidai labur hauek guztirakoaren laurdena dira, eta horren arabera, euskaldunek egiten dituzten bidaia guztien artean, edozein motatakoak direla (turistikoa edo 2. bizilekua), %72a iraupen laburreko bidaiak dira

Kontsiderazio hori alde batera utzita eta arreta bidaia turistikoetan soilik kontzentratuz, iraupen-tarte ohizkoena 4 eta 7 egun bitartekoa da (%31).

*Por definición metodológica de Familitur, los viajes cortos a 2ª residencia, que representan el 63% de los viajes de los vascos, tienen una duración inferior a las 4 noches. En el caso de los viajes turísticos, estos viajes cortos representan la cuarta parte del total, lo que resulta que, de todos los viajes que realizan los vascos, independientemente del tipo que sea (turístico o 2ª residencia), el 72% son viajes de corta duración.*

*Aparte de esta consideración y centrando la atención solo en los viajes turísticos, el intervalo de duración más frecuente es el que sitúa ésta entre 4 y 7 días (31%).*

Estatuko banaketarekin konparatuz, euskal banaketak badu alderen bat, euskaldunek bidaia luzeak egiteko duten joera handiagoa, alegia. Honela, Estatuan bidaia turistikoen %67ak 1 eta 7 egun bitarteko iraupena duen eta %32ak astebete gainditzen duen bitartean, Euskadin segmentazio hori %56-%42 da.

*Comparando con la distribución estatal, la distribución vasca presenta alguna diferencia que se resume en la mayor tendencia de los vascos a realizar viajes largos. Así mientras en el Estado, el 67% de los viajes turísticos tiene una duración entre 1 y 7 días y un 32% supera la semana, en el País Vasco esta segmentación es 56%-42%.*

**Euskal herritarrek eginiko bidaien egonaldiaren iraupena eta eguneko batez besteko gastua eta dagokion konparaketa Estatuko osokoekin. 1999. (%)**

**Duración de la estancia y gasto medio diario de los viajes realizados por ciudadanos vascos y comparación con el conjunto del Estado. 1999. (%)**

| | Euskadi | Estatua / Estado |
|---|---|---|
| Bidaia-mota egonaldiaren iraupenaren arabera / Tipo de viaje según duración de la estancia: | 100,0 | 100,0 |
| 2. bizilekurako iraupen laburrekoa / 2ª residencia corta duración | 62,6 | 63,3 |
| Bidaia turistikoak / Viajes turísticos | 37,4 | 36,7 |
| Bidaia turistikoen iraupena / Duración viajes turísticos | 100,0 | 100,0 |
| 1-3 egun bitartean / 1 a 3 días | 25,5 | 36,1 |
| 4-7 egun bitartean / 4 a 7 días | 30,8 | 31,3 |
| 8-15 egun bitartean / 8 a 15 días | 22,6 | 17,9 |
| 16-21 egun bitartean / 16 a 21 días | 7,1 | 4,6 |
| 21 egunetik gora / Más de 21 días | 12,8 | 9,1 |
| Ed/ee / Ns/nc | 1,1 | 1,0 |
| Bertan igarotako gau-kopuruaren batez besteko egonaldia / Estancia media pernoctaciones totales | 5,1 | 4,4 |
| Bertan igarotako gau-kopuru turistikoaren batez besteko egonaldia / Estancia media pernoctaciones turísticas | 10,7 | 8,8 |
| Eguneko batez besteko gastua bidaia turistikoetan / Gasto medio diario en viajes turísticos | 7.008 ptas. | 7.350 ptas. |

Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

**Bidaia turistikoen iraupena bidaiaria bizi deneko AEaren arabera. 1999.**

**Duración de los viajes turísticos de los vascos y comparación con el Estado. 1999.**




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

Iraupenari dagokionez euskal abantaila hau hobekien agertzen duen adierazlea bidaia turistiko bakoitzeko batez besteko egonaldiko ratioa da: bertan igarotako 10, 7 gau Estatuko 8,8ko batez bestekoaren aurrean. Estatu osoko bigarren batez bestekorik altuena da , Balearretako egoiliarrek lortutako ondoren (bertan igarotako 12 gau), madrildarrei dagokien batez bestekoa bertan igarotako 9,5 gauekoa eta kataluniarrena 8,9koa den bitartean.

*Quizás el indicador que mejor expresa esta ventaja vasca en cuanto a duración es el ratio de estancia media por viaje turístico: 10,7 pernoctaciones en el caso de los vascos frente a 8,8 de media estatal. Constituye el segundo promedio más alto del Estado, tras el obtenido por los residentes baleares (12 pernoctaciones) mientras el promedio referido a los madrileños es de 9,5 pernoctaciones y 8,9 en el caso de los catalanes.*

*Euskal herritarrek iraupen luzeagoko bidaia turistikoak egiten dituzte egonaldiko batez bestekoak adierazten duen bezala, bertan igarotako 10, 7 gau, Estatu osorako 8,8aren aurrean*

*Los ciudadanos vascos realizan viajes turísticos de mayor duración tal y como lo refleja el promedio de estancia media, 10,7 pernoctaciones frente a 8,8 para el conjunto del Estado.*

Logikari jarraiki, guztirako bidaien batez besteko egonaldia (hau da, 2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak ere kontuan izanda) gutxitu egiten da, baina hala eta guztiz ere euskal abantailak bere horretan jarraitzen du: bertan igarotako 5,1 eta 4,4 gau hurrenez hurren, eta horri esker, bigarren postua Estatuko rankinean.

*Lógicamente, la estancia media de los viajes totales (es decir, teniendo en cuenta también los viajes de corta duración a 2ª residencia) se reduce, pero aún y todo se mantiene la ventaja vasca: 5,1 pernoctaciones y 4,4 pernoctaciones, respectivamente, y con ello, su segundo puesto en el ranking estatal.*

Arestian adierazitako bidaia luzeagoak egiteko joerak azal dezake euskal herritarrek beren bidaia turistikoak aurrerapen zertxobait handiagoz planifikatzea ere; zehatz esanda, heren batek aurreko astean eta beste heren batek aste bete eta hilabete bitarteko aurrerapenarekin. Estatuan, bidaien %44a justu aste beteko aurrerapenez planifikatzen da.

Dena den, kontu honek ez du ondoriorik eguneko batez besteko gastu handiagoan; aitzitik, euskal bidaiariak egunero batez beste 7.008 pta. gastatzen ditu, Estatuko batez bestekoa 7.350 pta.koa den bitartean.

*La tendencia anteriormente apuntada a realizar viajes de mayor duración puede explicar el hecho de que también los ciudadanos vascos planifiquen con algo más de antelación sus viajes turísticos; concretamente un tercio la semana anterior y otro tercio entre una semana y un mes de antelación. En el Estado el 44% de los viajes se planifican justo con una semana de antelación.*

*Sin embargo, no es ésta una cuestión que repercuta en un gasto medio diario más elevado; al contrario, el viajero vasco gasta por término medio diario 7.008 ptas. frente a una media estatal de 7.350 ptas.*

**Aurrerapen-denbora euskal herritarrek eginiko bidaia turistikoen plangintzan eta dagokion konparaketa Estatu osokoekin. 1999. (%)**

**Tiempo de antelación en la planificación de los viajes turísticos realizados por ciudadanos vascos y comparación con el conjunto del Estado. 1999. (%)**

| | Euskadi | Estatua / Estado |
|---|---|---|
| Aurrerapen-denbora / Tiempo de antelación | 100,0 | 100,0 |
| Egun berean/aurreko eguna / Mismo día/anterior | 10,6 | 13,4 |
| Aste bete lehenago / Una semana antes | 22,9 | 30,9 |
| Aste bete/hilabete bitartean / Entre semana/mes | 33,3 | 26,6 |
| Hilabete bat/hiru hilabete / Un mes/tres meses | 16,4 | 13,9 |
| Hiru hilabetetik gora / Más de tres meses | 12,2 | 10,0 |
| Ez da agertzen / No consta | 4,7 | 5,1 |

Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Bidaiaren arrazoiak

## Motivos del viaje

*Aisiaren eta oporraldien etiketa beraren azpian euskaldunek egiten dituzten bidaia turistikoen %84a sailkatzen dira. Edozer bilatzen dela ere, hori da hiritarrek joan-etorriak egiteko duten arrazoi nagusia.*

*Bajo la etiqueta común del ocio y las vacaciones se clasifican el 84% de los viajes turísticos que realizan los vascos. Independientemente de lo que se busque, éste es el principal motivo por el que los ciudadanos se desplazan.*

Beste hainbat leku, bertako jendeak eta ohiturak, bertako paisaiak eta abar ezagutzeko jakin-minak bultzatu zituen bidaiariak urteetan zehar. Baina beste hainbat arrazoi ere badaude bizilekutik kanporako joan-etorrietarako: interes intelektuala eta zientifikoa, motibazio erlijiotsuak, osasuna edo merkatu berrien bilaketa.

Gaur egun, aisiaren kulturak gizakiek desberdinerako duten jakin-mina eta interesa aprobetxatzen du eta bere eskaintza turistak erakartzeko antolatzen eta garatzen du. Aisia, aisiarako denbora, kontsumorako nitxo handia da eta joan-etorri edo bidaiarako beharrezko estrategia errazten du.

1999an euskal herritarrek eginiko bidaia turistiko guztien artean, %84a oporraldiei, atseginari edo aisiari zor zaio, Estatuko batez bestekoa (%70) nabarmen gainditzen duen proportzioa. Esperientzia desberdinak bilatzen baditugu ere, batzen gaituena aisia-denboran mugitzen garela da, eta horrenbestez, entretenimenduzko arrazoiengatik.

*La curiosidad por conocer otros lugares, sus gentes y costumbres, sus paisajes, etc. movió durante años a los viajeros. Pero también el interés intelectual y científico, las motivaciones religiosas, la salud o la búsqueda de nuevos mercados están en la raíz de los desplazamientos fuera del lugar de residencia.*

*Hoy, la cultura del ocio aprovecha esa curiosidad e interés humanos por lo diferente y desarrolla y organiza su oferta para atraer turistas. El ocio, el tiempo del ocio constituye un gran nicho para el consumo, y favorecer el desplazamiento o viaje una estrategia necesaria.*

*De todos los viajes turísticos realizados por los ciudadanos vascos en 1999, el 84% han sido viajes debido a vacaciones, recreo u ocio, proporción muy superior a la media del estado (70%). Aunque busquemos diferentes experiencias lo que nos unifica es que nos movemos principalmente en el tiempo de ocio y, por consiguiente, por razones de entretenimiento.*

**Bidaia turistikoen arrazoia bidaiaria bizi deneko AEaren arabera. 1999. Euskadi eta Estatua.**

**Motivo de los viajes turísticos según la CA de residencia del viajero. 1999. Euskadi y Estado.**




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

Galdeketan agertzen zen beste arrazoietako bat, lagunak edo familiartekoak bisitatzea, hain zuzen, bigarrena da garrantziari dagokionez (%8,5), baina hainbesteko aldea du, ia ez du garrantzirik arrazoi nagusiarekiko. Lan-edo negozio-kontuak direla-eta, bidaien %2a egin da.

Estatuan, aisia da era berean arrazoirik nagusiena (%70), baina bere protagonismoaren zati bat familiartekoei edo lagunei eginiko bisitaldien esku uzten du (%17), negozio-turismoa bidaien %4a den bitartean.

*De las otras razones que presentaba el cuestionario, visitar amigos o familiares es la segunda en orden de importancia (8,5%) pero a tal distancia que casi pierde relevancia frente al motivo principal. Por temas de trabajo o negocios se han realizado el 2% de los viajes.*

*En el Estado, el ocio es también el principal motivo (70%) pero cede parte de su protagonismo a las visitas a familiares y a los amigos (17%) mientras el turismo de negocios representa el 4% de los viajes.*

## Joan-etortzeko bitartekoak

## Medios de desplazamiento

*Autoa da joan-etorri turistikoetan gehien erabiltzen den garraiabidea (%74), eta trena soluzio minoritario eta ia testigantzakoa baino ez da.*

*El coche, medio de transporte mayoritariamente utilizado en los desplazamientos turísticos (74%) quedando el tren como solución minoritaria y casi testimonial.*

Bidaiari euskalduna zein espainiarra bidaiari independentea da, gehienbat autoz bidaiatzen duena (%72 eta %74 hurrenez hurren), %12ak autobusa aukeratzen duen bitartean. Horren arabera, errepide-sareak gertatzen diren joan-etorrien fluxu guztien %86a inguru jasaten du, eta bada nabarmendu beharreko zerbait; aisia eta oporraldiei zor zaizkienez, hauek seinalatutako egunak dituzte egutegian, trafikoan duten eragina bezala.

Autoaren eta autobusaren ondoren , hegazkina datorkigu (%11) eta alde askoz ere handiagora, trena (%2). Estatuan sailkapen bera errepikatzen da, trena garraiabide gisa gehiago erabiltzen dela ikusten bada ere (%5).

*Tanto el viajero vasco como el español es un viajero independiente que viaja mayoritariamente en coche (74% y 72% respectivamente) mientras otro 12% elige el autobús. Esto supone que la red de carreteras soporta en torno al 86% de todos los flujos de desplazamiento que se producen, con una circunstancia a destacar y es que al obedecer a motivos de ocio y vacaciones, éstas tienen fechas señaladas en el calendario al igual que su repercusión en el tráfico.*

*Tras el coche y el autobús, aparece el avión (11%) y a mucha mayor distancia el tren (2%). En el Estado se repite esta misma clasificación si bien se observa un mayor grado de utilización del ferrocarril como medio de transporte (5%).*

**Bidaia turistikoetan erabilitako joan-etorrietarako bitartekoa, bidaiaria zein AEtan bizi den arabera. 1999. Euskadi eta Estatua.**

**Medio de desplazamiento utilizado en los viajes turísticos, según la CA de residencia del viajero. 1999. Euskadi y Estado.**




Iturria / Fuente: *Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).1999.*

## Ostatu-mota

## Tipo de alojamiento

Jomugan erabilitako ostatu-motari dagokionez, bigarren bizilekurako bidaiak direnean, etxebizitza propioa izaten da gehienetan (%72), eta %23ak soilik erabiltzen du familiartekoen edo lagunen etxebizitza. Euskal bidaiarien %6ak baino ez du adierazten 2. bizilekuko etxebizitza batera aloger-erregimenean aukera duela.

*En cuanto al tipo de alojamiento utilizado en destino, cuando se trata de viajes de corta duración a segunda residencia, mayoritariamente es la vivienda propia (72%) mientras otro 23% utiliza la vivienda de familiares o amigos. Solo un 6% de los viajeros vascos declaran que tienen acceso a una vivienda de 2ª residencia en régimen de alquiler.*

**Euskal herritarrek eginiko bidaietan erabilitako ostatu-mota. Dagokion konparaketa Estatu osokoekin. 1999. (%)**

**Tipo de alojamiento utilizado en los viajes realizados por ciudadanos vascos. Comparación con el conjunto del Estado. 1999. (%)**

| | Euskadi | | | Estatua / Estado | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
